

## NAZIO-ARTEKO UNEA

## BOLIVIA'KO GORA-BERAK

Bolivia'ko lendakari dan Paz Estensoro ta mineroen arteko burruka bukatu dala dirudi oraingoz. Baita ere badirudi lendakariaren onerako izan dala.

Orain, estadu guztien buru austertik aundiena ekonomia da. Eta zerbait geiago ere esan ditekete, ekonomia ondo edo gaizki erabiltzeko neurtzen duala gobernu baten balioa. Eta au batez ere ekonomia guztien ona iritxi naiean erabiltzen baldin bada. Eta guztien artean beartsuak gelenak diralako, ekonomia beartsuen onerako erabiltzen baldin bada.

Bolivia «azitzeko bidetan» dagon erri bat da. Ego-ameriketako erri guztiak bezela prolema ugaziz jositia. Gizarte, politika ta ekonomi prolema. Eta azkeneko auker bestien iturri bezela.

1952'gna. ezkeroztik erreboluzio-zaleak dira agintari daudenak. Izena ori dute gutxienez. Erreboluzio-zale oien artean bi jokaera dira garbi-garbi azaltzen diranak. Erdi aldekoak alde batetik, nekazarien artean indar gelena dutenak, eta ezker-zaleak, langilleen artean indartsu diranak. Azkenengo auker, lendakari ordezko buru bezela edukiaz, izan dira egun aurtan gobernuaren kontra gogor jar-

dun diranak, bañan erdi-zaleak, eta lendakaria auetakoa da, berearekin atera dira.

Datorren urtean lendakaritzarako elçkizloak izango dira ta politikokoak asiak dira ortarako gauzak prestatzen. Paz Estensoro jaunak, oraingo lendakariak, orain asita datorren lendakaritza bereganatzeko gogoa ta asma du. Ortarako elçkizloak irabazi bearko ditu datorren urtean. Eta alegiñak egiten asia da ortarako.

Azitzen dijoan erri batean estruktura zaharren tokian berriak jartzea, edo batere ez dauden lekuan berriak jartzea mifi eta neke askorekin bakarrik egiten da. Ori da Bolivia'n pasatzen ari dana. Baditu mina oso on eta ugariak, 1952'go erreboluzioa ezkeroztik nazioaren menpean daudenak. Bañan ala ere ez dirudi ekonomi prolema erabaki ta zuzendu diradenik. Azkeneko aurtan estabilizazio batean sartuta dago gobernu ta or dira komerziak estabilizazio orri eusten.

Etzaizkigu Bolivia'tik berri asko irixten gure egunerokoan bitartez ala ere etzaigu gaizki etorriko baldala ta bere prolema badauzkalak jakiteak.

ARREGI'tar RIKARDO'k

## I R U N

\* Martzial Deunaren Ikastetxeo ikasleen gurasoak eskaturik, Kristau Ikastoletako Anaiek euskerazko ikastaroak ematen ari dira. Astean bein, euskaldun mutilentzako.

\* Joakin Beltran de Heredia jauna izendatu dute Alkatetzarako. Eritarren artean ongi ikusia da Beltran jauna, eta euskalduna.

\* Berriro ere Ameriketara joan-da Joxe Manuel Estomba apaiza, euskal idazlea («Zaritzo»-en egilea dugu bera) eta misiolaria. Andik idatziko digu noiz-beinka, ango berriak emanez «Zeruko Argia» Astekari onetan.

\* Ogei ta bost urteak bete ditu Dabid Esnal erretore jaunak Irungo Parroki zarreko erretoretzan, Junkaleko Andra Mariaren eleizan.

\* Etorri da Aita Larrañaga gotzain jauna Erromako Eleizaren Batzar Nagusitik. Argentinan Nagusi Probintziala izan dan Aita Ebanjelista Muruetakoa be Odarribiko Amute komentura etorri da. Baita Sesmako Aita Leandro, aspaldiko euskaldun-berria» be.

\* Aita Serapio Mitxelena izendatu dute Pasiotarren Nagusi eta Santa Jemako parroku. Aita Jose Cani, Mendeluko Betharramdarren Ikastetxeo zuzendari. Aita Gregorio Mondragoekoa, Mendeluko Kaputxinoen Nagusi. Kristau Ikastoletako Ikusleri edo Nagusi Probintzial berria: Alberto Zabala Anaia; orainarte izan dana, Anai Paulo Bastarretxea, Bilboko Santiyau Apostoluaren Ikastetxeo Zuzendari joan da.

\* Diñoienez, badira susmoak emengo «El Bidasoa» astekaria berriro ere agertuko dala. Astekari esagutu au argitaratzeko lendabiziko baimena 1886'garen urtean eman zion Gipuzkoako gobernadoreak.

N. A. G.

## LIBURUAK

## MENDES - FRANCE'REN

«ERREPUBLIKA BERRIA»<sup>(1)</sup>

Gaur eguneko politika teoriaren gañean zerbait jakin nai dunak, edo politika zertara jotzen duan jakin nai dunak, liburu au eziñ dezake alde batera utzi. Egillearen iritziak gureak izan ditezke edo ez, bere esanak onartu ditzazkegu edo ez, bañan inola ere eziñ dezakeguna egiñ argitaratu ez balitz bezela jarraitzea da.

Mendes-France sozialista oso-oso da. Zazpi illabaten bitartean Frantzia'ko gobernuaren buru izandakoa. Frantzia'ko diputaduetako lengo urteko azaroren izan ziran eleizioetan etuzten diputadu aukeratu. Baditu au baño liburu geiago argitaratutakoak, ala ere orain arteko onena au du. Frantzes on bat bezela argia ta lojkoa da idatzi duan liburu, ententitze errezekoa.

«La Republique Moderne» Frantzia gai bezela egindako liburu da. Obeto esateko Errepublika berri ori, Frantzia'ko Errepublika berriaren irudia izan nai du. Frantzia'n gertatzen ari diranak eta, politikari dagokionez, bizitzen ari diran unek, ez dira oi bezelakoak. Kolonien bukaera, Algeria'ren askatasuna etab. moldura berrien iturri izan dira. Frantzia'rentzat. Orregatik dago De Gaulle. Orregatik V'ren Errepublika, konstituzio bat baño geiago gizon bat da. De Gaulle pasako da ta beste zerbait etorriko da. Ordurako bideak prestatzeko idatzia dago liburu au. Orregatik liburu onetan esaten diranak eziñ dira asiera-asiaririk danentzat baliozkoak bezela artu. Ala ere gure garaia obeto ikusten laguntzen digu.

Liburu onen gaia: ekonomia ta politika. Eta ekonomiari dagokionez planifikazioa. Au da politika guztiaren zergitiñ nagusia. Ta ekonomia erabilli bear dan adierazten duan planifikazioa

ez, baizik eta erabakitakoak bete erazitzen saiatzen dan planifikazioa. Nik beti izan diot bildur estaduari —nolanaiko estaduari— ta orain geiago. Gizonaren askatasunetzaz eziñ ase ditekete gosedu-na dirudillako estaduak. Estaduari esku-bide bat geiago uztea arriskuzkoa iruditzen zitzaidan. Orregatik arritu nintzan demokrazia eusteko modurik egokiena estaduaren jabe egitea zala irakurri nuanen. Eta, egia aitortu bear baldin badet, benetakoa diteketa da esan ori. Bañan egi au beste onekin bakarrik osatu ditekete: demokrazia demokratik osatuta bakarrik ditekete. Demokratik ez baldin bada ez dago demoraziarik. Agintaritzak indar usai geigi dauka agintaria usai orrekin ez mozkortzeko. Oso-osoan demokrazia dan batek bakarrik menperatu ditekete moskorkei orren tentazioak.

Demokrazia zer-egitiñ bat da, bukaerik gabeko zer-egitiñ. Sindikatoak, alderdiak, danak planifikazio orren egille, zuzentzalle osagile izan bear dute.

Badirudi liburu ontan politika baterako bearrezko diran gauz asko aitatu ere ez dituala egiten, eta orrela da, bañan Mendes-France'k berak aitortzen du ekonomia ta politika baten sustraiak bakarrik adierazi nai dituala, gañentzekoak ondorenak besterik ez dirala.

Irakurle batere astirik baldin badezu irakurri ezazu liburu au. Erderaz ere argitaratua dago «Aguilar» etxearen bitartez. Eta ez uste izan au esateko Aguilar etxeak txanpon bat ere eman ditunik. Ez, nere ustea ta nere iritxia besterik ez da.

A'tar R'k.

(1) «La Republique Moderne», Paris'en, Gallimard'ek 1962'gn.

## BERRIKETAN

Shaw idazlearen bat:

Beñola emakume batek idatzi zion: «Zu ezagutzeko gogo aundiak dauzkate. Datorren asteazkenean etxean egongo naiz, arratsaldeko bostetatik zazpirak arte».

Shaw'ek emakume ura berritsu ta arro bat besterik etzala jakin zuanean onela erantzun zion: «Suerte txarra, ni ere datorren asteazkenean arratsaldeko bostetatik zazpirak arte nere etxean egongo naiz».

—oOo—

Inglatera'ko epaile, juez, famatu, batek egun guztiak lanerako zeuzkan batera jairik gabe. Lord Mansfield zan. Erregearen asarre aundiarekin beñ epaia, jautzua, ostiral santu batean edukitzea erabaki zuan. Bere laguntzalle batek esan zion:

—Barkatu beza bañan Poncio Pilatos ezkerotzik ostiral santuan epaia eduki duan lengo epailea izango da berorri.

Ordulari Zilar Bitxitegi

Aldanondo'k

Eskeintzen dizue bere sal gaiak

Barruagie Enparantza, 10

Urrutizkifia: 16467

DONOSTIA

Oyal s. a.

Oyal eta eforru almazena

Paregabeko ta bikaiñenak

Telefonia 14304

Garibay. 4

DONOSTIA

ARANZADI'tar J. M.

Era guzietako seguroak

Barzelona'ko «LA CATALANA»

Seguroetako ordezkarria Gipuzkoan

San Martzial, 33 enila. - Urrutizkifia 19226

DONOSTIA

Televisores «Vanguard» AGNI  
Central de Materiales Eléctricos  
Probintziako komertzio on guzietan salgai